

- 1.-) Iñigoren, aitaren eta amaren adinen batura 86 urtekoa da.
Iñigok 13 urte ditu, eta bere aitak, 38. Zenbat urte ditu amak?

Eragiketa(k)

Erantzuna: _____ urte ditu amak

- 2.-) Andonik 14 urte ditu. Aitak, berriz, Andoniren urteen hirukoitza du.
a) Zenbat urte ditu aitak?
b) Zenbat urte dituzte bien artean?

Eragiketa(k)

*Erantzunak: a) _____ urte ditu aitak
b) _____ urte dituzte bien artean*

- 3.-) Aparkaleku batean 142 auto zeuden goizean. Egunean zehar, 87 auto irten dira hortik, eta 65 sartu. Zenbat auto daude aparkalekuan gauean?

Eragiketa(k)

Erantzuna: _____ auto daude aparkalekuan gauean.

4. -) Herri-lasterketa batean 515 gizonak, 373 emakumek eta haur batzuek hartu zuten parte. Guztira, 1.172 pertsonak.
Zenbat haurrek hartu zuten parte lasterketan?

Eragiketa(k)

Erantzuna: _____ haurrek hartu zuten parte lasterketan

5. -) Jonek album batean jaso ditu kromoak. Bederatzi kromo jarri ditu orri bakoitzean, eta 38 orri bete ditu. Zenbat kromo ditu Jonek?

Eragiketa(k)

ErantzunaK _____ kromo ditu Jonek

6. -) Marik 8 bira egin ditu atletismo pista batean. Pista 750 m-ko luze da.
a) Zenbat metro egin ditu Marik? b) Zenbat Km dira?

Eragiketa(k)

*Erantzunak: a) _____ metro egin ditu
b) _____ Km dira*